

Euri-azalezko begiak maite ditut
 sustrai gardenekoak
 gure simbolo tanpadatsuen
 argi ilunaren disdira bitxiak
 etengabeko soka-tira epelean dirautenak
 albokoaren aire-erota zahar-amankomuna
 beti iruteko prest
 jainko hurbilen leinukoak bait dira
 lurretik jaiotako bihotzak
 borondatea bezain ainarrikoak
 eginahala bezain gizatiarrak
 maite ditudan euri-azalezko begiak
 hain dira otzarak eta maliziarik gabekoak
 tolestean ez den begiradan zerbitzatuak
 eta arin-arinarekin ibileraz hurreeratuak!

Amaia Iturbide Mendinueta